

# txintxarri 30 urte!

## Mendeetan atzera egin dute

Ikuskizun, postu eta festa, giro bikaina izan da Erdi Aroko VII. Xakobeo Azokan / 3

TXINTXARRI

## Mende erdiaren zapore goxoa

Herriko lau sukaldarik parte hartu dute Lasartearra elkarteak antolatutako aste gastronomikoan / 4

**Europako Mugikortasun Astea azoka, martxa eta zenbait jolasekin bukatuko da / 2**

**Euskarazko aisialdi eskaintza zabal, dibertigarri eta hezitzailea prestatu dute gazteentzat / 6**

**Urriaren 1ean 30 urte beteko dituela ospatuko du TXINTXARRI-k, herritarrekin / 7**

**GurasoLeku egitasmoko izen ematea hilaren 29ra arte zabalik dagoela gogorarazi dute / 8-9**

**Intza elkarteko pilota eta pala sailetako jokalariek garaipenak erdietsi dituzte, ederki borrokatuta / 10**

**Makina bat probatan lasterka egin dute lasartearrietarrek, maila txukuna emanda / 12**



**euskara hurbil,**  
zu urrun heltzeko



**aek**  
euskara praktikoa

**Muntteri AEK euskaltegia**

## MATRIKULAZIOA ZABALIK

- Maila guztiak: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2
- AURREZ AURREKO ESKOLAK (tutoretzekin)
- AUTOIKASKUNTZA
- AZTERKETA OFIZIALAK PRESTATZEKO IKASTAROAK
- GURASO TALDEAK
- JUBILATUENTZAKO TALDEAK
- MINTZA-TALDEAK: Astean 2 egunez.

16-18 urte  
**adi!**

dirulaguntza-lerro berria,  
C1 maila doan prestatzeko

**20 €** baino ez duzu ordaindu behar

eman izena!  
irailaren 28a arte



# Azoka, martxa eta jolasak, bukatzeko

Europako Mugikortasun Astearekin bat egin du Lasarte-Oriak aurten ere. Horren bueltan jarduera ugari aurrera eramaten ari dira udala eta Artelatz enpresa. Gaur, hilak 22, Muittu Manttangorri hiribusa dohainik erabil dezakete herritarrek

## Txintxarri

*Energia aurreztu* lelopean aurrera eramaten ari dira aurten-go Europako Mugikortasun Astea. Egitasmoarekin bat egin du Lasarte-Oriako Udalak eta Artelatz enpresarekin batera zenbait ekimen egin ditu honezkerok: *Jarri prest zure bizikleta MUGIrekin*, txirrindan ibiltzen ikasteko ikastaroa eta ipar martxa saioa, Ostadar SKTren eskutik. Beste hainbeste dituzte oraindik egiteke, izan ere, bihar, hilak 23, larunbatez, bigarren eskuko azoka, bizikleta martxa eta mugikortasunarekin zerikusia duten jolasak izango dira. Bestalde, Muittu Manttangorri hiribusa dohainik erabil dezakete lasarteoriarrek, gaurko egunean zehar.

Esan bezala, aurten helarazi nahi duten mezua da baliabide jasangarriak eta gutxiago kutsatzen duten ibilgailuak erabili behar dituztela herritarrek, hala nola, oinez ibiltzea, bizikleta edo autobusa. Bestalde, udalak gogoratu du Mugikortasun Jasangarriaren plana egina dagoela eta bertan jasotakoa inplementatzea dagokiela orain. Norabide horretan, bi igogailu-Zabaleta auzora igoko da bat, eta besteak Kale Nagusia eta Goikale lotuko ditu, Zataraine-



Bizikletak berrikusi eta konpondu dituzte Okendo plazan. TXINTXARRI

raino iristeko lehen urrats gisalizitatuko ditu eta Manttangorriren zerbitzua areagotuko, beste neurri batzuen artean.

## Azken txanpa

Bizikleta martxa 10:00etan hasiko da, Okendotik. Parte hartu nahi dutenek euren ibilgailu eta kasakoak eraman behar dituztela ohartarazi dute antolatzaileek. Ordu erdi geroago, toki berean, bigarren eskuko azoka zabalduko dute: bertaratzen direnek 500 eurora iristen ez diren preziotan erosi ahalko dituzte txirrinda,

patinete eta bestelakoak. Zerbait salgai jarri nahi dutenek 09:00etatik 10:30era eraman beharko dute azokara, [www.merkabi.eus/lasarte-oria](http://www.merkabi.eus/lasarte-oria) helbidean aurrez hitzordua hartuta. Bitartean, Kale Nagusian, 11:00etatik 13:30era, mugikortasunarekin zerikusia duten jolasak egingo dituzte gaztetxoentzat, esate baterako, trebetasuna edota zinta jokoa.

Antolatzaileek kontzientzia hartzera eta Europako Mugikortasun Asteako jarduera horietan parte hartzera animatu dituzte herritarrak.



Lasarte-Oriako Udalaren artxiboko irudi bat. TXINTXARRI

## Lasarte-Oria eremu tentsionatu izendatzeko eskatu dute

Familia unitate askok euren soldaten %40 edota %50a bideratu behar dute alokairua ordaintzera

## Txintxarri

Iragan astean, hilaren 14an egin zuten hil honetako ohiko udalbatzarra, eta gai ordenak luzea zirudien arren, nahiko azkar landu zituzten ia puntu guztiak. Lehen seiek ez zuten inolako eztabaidarik sortu; bozketak egin zituzten zuzenean eta denek egin zuten aurrera.

Zazpigarren puntuko gaiak hartu zuen denbora tartetik zabalena; "Lasarte-Oriako alokairu merkatuko prezio garestiek tenkatutako eremuaren definizioa, eta Estatuko etxebizitza legeak ezartzen dituen mugak mimetan gauzatzeko" mozioa landu zuten. Stop Desahucios plataformako kide Rosa Garciak hartu zuen hitza, eta eskaeraren gaineko xehetasunak eman zituen, eta eskatu, Lasarte-Oria eremu tentsionatu izendatzeko. Kontatu du, besteak beste, egun familia unitate askok euren diru sarreraren %40 edota %50 bideratu behar dutela alokairua ordaintzera, eta, ondorioz, alokairuen prezio altuak ezin ordainduagatik, etxegabetze arriskuan dauden familien zenbait kasu badirela herrian. Honako beste datu hau ere ezagutarazi du: Lasarte-Orian 854 pertsona daude Etxebiden (Etxebizitzaren Euskal Zentrua) izena emanda. Aldi berean, azpimarra egin dio Euskadik bere etxebizitza legea aplikatzearen beharriari.

Udalerrri bat eremu tentsionatu izendatzeak ekarriko luke kontratua amaitu ondoren errentariarentzat urtebeteko aparteko luzapena egiteko aukera, eta erren-

tari berrientzako kontratu berrietan, alokairua aurreko kontratuko errentara mugatzea. Horrekin batera, erreferentziako prezio-indizeen sistemen mugak azken bost urteetan alokatuta egon ez diren etxebizitzetzi ere aplikatzeko aukera ere barne hartzen du.

EH Bilduko Uxue Loinazek hartu zuen hitza, eta hainbat datu ekarri zituen mahai gainera. Esan zuen etxebizitzaren salmentaren eta alokairuaren prezioak "asko" igo direla azken urteetan: "Batez beste, Lasarte-Orian salmenta 3.300 euro metro koadroa, eta 800 euro alokairua". Gaineratu zuen herriko etxebizitzaren %80a merkatu librekoak direla, hortaz, horrek erabakitzen duela zein den herriko etxebizitzaren prezioa.

Horrekin guztiarekin batera, gogorarazi zuen bere alderdiak "etxebizitza parke publikoa" sortzeko hainbat proposamen egin dituela, horien artean Hipodromo etorbideko udalaren eskumeneko etxebizitzak alokairura bideratzearena.

Hitzartzea amaituta, gaia bozkatu zuten; aldeko hamahiru bozkarekin (PSE-EE eta EH Bildu) eta lau (EAJ eta ELOP) abstentziorekin aurrera egin du. EAJko Jon Antxordokik hitz egin zuen gero, eta azaldu, bere alderdiaren abstentzioaren arrazoia: "Gure ustetan kompetentzia bat zapaltzen delako abstenitu gara". Azken puntuan ez zuen inongo alderdik ez galdera ez erregurik egin.

Urteko hamazazpigarren udalbatzarra izan da hil honetakoa.

## Aurtengoak, ibilaldi luzeagoak

Lasarte-Oriako Udalak, Biyak Bat egoitzak, Nagusilan elkarteak eta Osakidetzak aurrera eramango dute aurten ere Ondo ibili egitasmoa, jarduera osasungarri bat eta adinekoen arteko harremanak sortzea sustatzeko.

Datorren urteko ekainera arte, Okendo plazan elkartuko dira ostiraletan, 11:00etan. Paseoak luzeagoak izango dira aurten, 12:30era artekoak.



Herritar talde bat, paseo bati ekiten. TXINTXARRI



NEURE KABUZ  
GORKA LASA

## Denborak aurrera etengabeen...

Beti presaka gabiltzan irudipena eta sentsazioa dugu gaurko gizartean. Korrika hara eta hona ezin heldu, denborarik ez dugula esanez eta hogeita lau orduko egunari gehiago eransteko irrikaz, nahiz eta orduan ere berdin ibiliko ginatekeen. Denbora nola kudeatu ikasi beharko genuke lehendabizi; ziur biharko utzi dezakegula gaur egin nahi dugun zerbaite, baina dena orain egin nahi, biharko egunik egongo ez balitz bezala.

Naturak baditu denbora neurgailuak, egunsentitik iluntzerainokoa adibiderik argiena, baina gizakiak ordularia edo erlojua asmatu zuen, eta guztiok bizi gara horren menpe, izan eskumuturrean, izan patrikan ala izan elizako kanpandorrean.

Pentsa zein garrantzitsua den erlojua, non pertsona baten estatus maila nabarmendu dezakeen, edo luxuzko artikulu bat bilakatu daitekeen. Kontrakoa, berriz, erlojua iratzargailu bilakatzen bada, batzuentzat fobia edo mespretxuzko tramankulua izan daiteke, goi-zeroko amesgaizto izanik.

Erlojuak baldintzatzen digu bizimodua; goizean jaikitzeke, lanera joateko, otorduatarako, aisialdirako, ohera joateko... edozertarako. Egia da, oporretan gaudenean, erlojuaren menpekotasunetik at bizi garela diogula askotan, baina hori ere neurri batean izaten da, zeren eta nork ez du hegaldirik edo trenik hartu oporretan? Edo museo baten bisita orduak begiratu, edo jaialdi eta kontzerturen batena? Dena egiten da ordu jakin baten menpe.

Denbora neurtzen dugun momentutik luze edo motz egin daiteke. Minutu bat ur azpian itolarrarian eternitate bat izan daiteke, minutu erdi bat Marokoko lurrikara erdian ere ez zitzaizen motz egingo. Eta minutu erdi horrek bizitza alda diezazuke, askotan nahikoa da begien itxi-ireki bat zerutik infernura pasatzeko.

Jaio eta bizi gara, denbora luzez ala ez. Jaiolekuaren arabera, denbora tarte berean, zaharrago edo gazteago izango gara, eta horrek agian, denboran iraun, bizi edo aprobeztatzea ekar lezake.

Tik-tak, tik-tak orratzek hor dihardute. Erritmorik galdu gabe, moteldu gabe, nagitu gabe, etenik gabe, denborak beti aurrera. Gu gara oharkabeen zahartzen ari garenak, eta betirako geldituko garenak.



TXINTXARRI

## Auto klasikoen topagune

San Sebastian Circuit Spirit VI. Rallya gure herritik igaroko da bihar, hilak 23. Bazkalostean, Andoaindik etorriko dira 150 auto klasiko inguru; Orian barrena joan eta Hipodromora helduko dira. 17:30ean berriz abiatu eta Donostia etorbidea, Kale Nagusia eta Zirkuitu ibilbidea zeharkatuko dituzte.

# Denboran atzera, zazpigarrenez

Erdi Arora bidaiatu dute beste behin lasarteoriatarrek. Eskulangile eta askotariko jaki postuek hilaren 15etik 17ra hartu zuten Kale Nagusia eta Okendo plaza. Guztira, 112 izan dira aurten beraien eskaintza ekarri zuten merkatariak. Horrekin batera, musika, ikuskizunak, tailerrak eta jolasak ere nahi adina izan zituzten lasarteoriatarrek. Deigarriena, gerlarien borrokaldia izan zen. Garai horretako armadura txapelketa bat nolakoa zen irudikatu zuten, ezpata edo aizkora eta ezkutua eskuetan.

Ostiral arratsaldean izan ezik, antolatzaileek eguraldia lagun izan zuten feria aurrera eraman bitartean eta horrek ere lagundu zuen, jende ugari ibili baitzen postu eta ikuskizunetan barrena.



Akrobaziak egiteko aukera izan zuten herritarrek. TXINTXARRI



Ikus-entzule gaztetxoak, Amaluraren ipuinak entzuten. TXINTXARRI



Jendetza ibili zen azokako postuetan. TXINTXARRI



Borrokaldi ikusgarriak egin zituzten gerlariek. TXINTXARRI

# HEZITZAILE lan pertsonea



AURTENGO PROGRAMAK  
DISEINATZEN ARI GARA.  
GUREKIN LAN EGIN NAHI  
BADUZU BETE  
FORMULARIOA:



labur.us/hezitzaileak2324

**JAVI PENAS HERRIKO ETXEA**

Begi bistara egiazko kabiarra zirudien arren, osagai erabat ezberdinekin prestatu du plater zapoetsua. Tipula potxatua, txipiroi tinta, dilista xukatuak, horien ura eta ostrena nahasi eta sutan kozinatuta, gainean arrautza poxatua jarrita zerbitzatu ditu ontzi gardenetan.

**JAVI MENDO LAVIE GASTROBAR**

Asiako ukitua eman dio aste gastronomikoari plater honekin: arroz fideoak, izokin *tataki* eta *kimchi* maionesarekin. Bere jate txeko kartan saldu baino lehen Lasarte-arrako mahaikideekin egin du proba; haien iritziak entzunda, arrakasta bermatua du.

**SERGIO HUMADA CASA HUMADA**

Bat ez, bi mokadutxo dastatu dituzte herri-tarrek. Zapore ezagunekoak agian, baina, itxura, bereziki bi horietako batena, berri-tzailea: Gildarena. Parmentierak lagundutako masaila nola prestatu erakutsi die sukaldariak, eta jan ere egin dute, nola ez.



# Aste gastronomikoa egin du Lasartearra elkarteak, 50 urte bete dituela ospatzeko

Javi Penas, Javi Mendo, Sergio Humada eta Yon Mikel Rodriguez sukaldariek plater goxo bana prestatu dute Erribera kaleko egoitzako sukaldean. Bestalde, igande honetan, hilak 24, bazkidearen eguna aurrera eramango dute Lasartearrako kideek

**Maddi Zaldua - Iñigo G. Sarobe**  
Lasartearra elkartearen aste gastronomikora bertaratu direnek mende erdiaren zapore goxo

dastatu dute, ekimen horretan parte hartu duten lau sukaldari hauei esker: Javi Penas (Herriko Etxea), Javi Mendo (Lavie), Ser-

gio Humada (Txitxardin) eta Yon Mikel Rodriguez (Avenida). TXINTXARRI saio horietan guztietan izan da kronika eta argazkiak

egiten, eta hiru ekarri ahal izan ditu paperera, azkena egin dute-nerako aldizkaria inprentan zegoelako. Rodriguezek donostiar erara prestatutako txangurroaren berri hilaren 29ko aldizkarian emango dugu.

Aste gastronomikoa amaituta ospakizunekin segiko dute La-

sartearrako kideek, bazkidearen eguna aurrera eramanda. Igande honetan izango da, hilak 24. Meza, poteo girotua, haurrentzako puzgarriak, Erketz EDTren emanaldi bat (bi hauek, herritar guztiei zuzenduta) eta bazkaria egingo dituzte. Egitarau osoa *Agenda* atalean duzue.

# KOMERTZIO TXIKI HERRI HANDI

LASARTE-ORIA

# GREMIOAK

## BARNE-DISEINUA

 **SUGATE**  
SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
  - AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
  - HORMA-ARMAIRUAK
  - MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5  
Lasarte-Oria  
Tel: 943-361 471  
[www.sugatecocinas.com](http://www.sugatecocinas.com)

## ITURGINTZA

 **ELOLA  
ITURGINTZA**

ITURGINTZA | GASA  
BEROKUNTZA | ERREFORMAK  
**GREMIOEN KOORDINAZIOA**

Galdara, berogailu eta termo ordezkapenak

Tel: 608 76 00 06  
[elolaiturgintza@gmail.com](mailto:elolaiturgintza@gmail.com)  
LASARTE-ORIA

## IGELTSERITZA

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza Orokorra



- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 05 93 92 - 943-56 66 40  
[uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com) - [www.uraitz.com](http://www.uraitz.com)  
Hipodromo etorbidea, 10 LASARTE-ORIA

## ELEKTRIZITATEA



- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
  - TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA  
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21  
600 85 75 86 [www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)  
[tienda.electricidadarregui.com](http://tienda.electricidadarregui.com)

## KRISTALDEGIA ETA LEIHOAK

 **ANORGA TXIBI S.L.**  
KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
- Beira bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
  - Ispiluak
  - Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA  
943-37 17 33 • 610 45 93 45  
[www.cristaleriaanorgatxiki.com](http://www.cristaleriaanorgatxiki.com)

31. urteurrena

 **ISU**

PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK  
Pertsianak, motorizazioak,  
barandak, toldoak, armairuak,  
eltxo sareak eta gehiago...

 **943-36 64 95**  
[ventanas\\_isu@hotmail.com](mailto:ventanas_isu@hotmail.com)

Kale Nagusia, 46 behea.  
LASARTE-ORIA  
Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala  
USURBIL 

ZURE NEGOZIOA IRAGARRI NAHI DUZU HEMEN?  
PUBLIZITATEA@TTAKUN.EUS | 646 82 44 66



Kuadrillategiko partaide eta begirale talde bat, eski irteera batean. TTAKUN KULTUR ELKARTEA

# Euskarazko aisialdirako eskaintza erakargarria

Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak, euskara hitzarmenaren baitan, 0 eta 18 urte arteko herritarrentzat jarduera sorta zabal, dibertigarri eta hezitzailea prestatu dute aurten ere. Begirale gisa aritzeko lan poltsa zabalik dagoela ohartarazi dute antolatzaileek

## Txintxarri

GurasoLeku, Amaraun, Gazte Kluba, Kuadrillategi eta Faktoria. Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak duten euskara hitzarmenaren baitan, bost egitasmo horiek prestatu dituzte 0 eta 18 urte arteko lasarteoriatarrentzat, euren aisialdia ere euskaraz garatu eta bizitu dezaten eskaintza zabal,

dibertigarri eta hezitzaile baten bidez. Horren helburua da gure herriko gazteek euren hizkuntza ohiturak aldatzea, bestela esanda, euskaraz gehiago hitz egitea, proiektu bakoitzak bere ezauzgarriekin adin tarte jakinetan eraginda.

GurasoLekun ez beste lau programetan begirale aritu nahi dutenek aukera dute lan

poltsan izena emateko, formulario hau beteta: [labur.eus/hezitzaileak2324](http://labur.eus/hezitzaileak2324).

## Haurrak, hiztun oso

GurasoLeku egitasmoa HH0 eta HH5 mailen arteko umeei eta euren gurasoei zuzenduta dago. GurasoLagun, GurasoTegi eta GurasoLandia izeneko adarren bidez, haurrak ahalik eta hiztun

osoan izatea du xede, eskolen eta familien arteko elkarlana sustatuta. Lehenengoan, euskaraz mintzatzeko gaitasuna duen pertsona bat (bidelaguna) elkartzen da horretarako ohitura ez duen batekin (bidelaria), azken horrek mekanismoak har ditzan. Bigarrenean, euskara eskolak jasotzen dituzte gurasoek, eta oinarriko gaitasunak landu. Azkenik, hirugarrenean, beste bi ataletako gurasoak elkartu eta aisialdiko ekimenak egiten dituzte haurrekin; euskaraz hitz eginez gozatu eta familiarrean tarte atsegin bat igarotzea dira helburuak.

Izen ematea haurren ikastetxearen edo Ttakun KEren bidez egin dezakete herritarrek hila-ren 29a baino lehen, ostirala.

## Amaraun eta Gazte Kluba

Amaraunen elkartuko dira 2 eta 8 urte arteko haurrak; 9 eta 12 urte artekoak, berriz, Gazte Kluban. Lehenengoan, gazteenak (HH3 eta HH4) diren umeekin ipuin kontaketa saio bereziak aurrera eramango dituzte, irudimena euskaraz landu eta gozatzeko. Koxkortuago daudenek, berriz, (HH5etik LH2ra arte), tailer hezigarri eta dinamikoak egingo dituzte: magia, sukaldaritza, laborategi saioak, eta abar.

Horrez guztiaz gain, ekimen jakin batzuk antolatuko dituzte familia osoarentzatko: ikastaroak, ikuskizunak, txangoak... Antolatzaileek jarduera horiek prestatu ahala emango dute xehetasunen berri, baina, norbaitek zalantzarik izan edo informazio gehiago nahiko balu, [aisia@ttakun.eus](mailto:aisia@ttakun.eus) helbide elektronikora idatzi edo 695 78 53 92 telefono zenbakira deitu dezake.

Gazte Kluban, berriz, Lehen Hezkuntzako lau mailetan ikasten

ari diren gaztetxoak elkartuko dira, hamaika jolas nahiz tailer egiteko. Hori gutxi balitz, bereziagoak izango diren abenturak bizituko dituzte, asteburu eta oporraldi garaietan batez ere: irteerak, esperimenduak edota Natur Ekintzak, besteak beste.

## Kuadrillategi eta Faktoria

Nerabeen (DBH1etik Batxilergo arte) euskarazko aisialdia bultzatu eta dinamizatzeaz Kuadrillategi eta Faktoria arduratuko dira. Lehenengoan parte hartuko dute DBH1etik 4ra arteko gazteek, ostiraletan, 19:00etik 21:00etara. Lehen hitzordua urriaren 6an jarri dute, ostiralarekin. Tokia zehazten dutenean emango dute horren berri arduradunek. Saio arruntak ez ezik, berezi batzuk egingo dituzte (eski irteera, Zuhatzara txangoa...), partaideekin hitz egin eta koordinatuta. Horrez gain, noizean behin beste herri batzuetako Kuadrillategiko gazteekin elkartuko dira.

Faktorian, azkenik, Batxilergo ikasleek parte hartuko dute. Egitasmo hori ere laster jarriko dute martxan, gazteekin ordua eta eguna adostutakoan. Proiektu zehatz bat aukeratu eta landuko dute, urtero bezala.

Bi egitasmo horiei buruz gehiago jakin nahi duenak bide hauek erabil ditzake: [ktglasarteoria@ttakun.eus](mailto:ktglasarteoria@ttakun.eus) helbide elektronikoa edo 665 49 75 02 telefono zenbakia.

**BOST EGITASMOETAKO SAIOAK URRIAN HASIKO DIRELA JAKINARAZI DUTE ANTOLATZAILEEK**

## 0-18 URTE BITARTEKO ESKAINTZA



# Hiru hamarkadako bidea, herrian eta herritarrekin

TXINTXARRI aldizkariak 30 urte beteko ditu urriaren 1ean, igandearekin. Urtemuga berezi hori herrian eta herritarrekin ospatu nahi duenez, egitarau xume bat prestatu du zenbait eragileren laguntzarekin, festa giroa kalera eramateko

## Txintxarri

Zenbat gauza aldatu ote dira gure herrian azken hiru hamarkadetan? Horretarako tarte bat hartu eta memoria ariketa eder bat egiteko moduko galdera da, zerrenda luze bat osatzekoa. Urteak joan eta urteak etorri, bururatu ahal zaizkigun gertara horien guztien berri eman du TXINTXARRI aldizkariak, gertutasunez, eta, nola ez, euskaraz. Datorren asteko igandean izango da herri komunikabide horren urtebetetze eguna, urriak 1, eta, 30 urte ez direnez egunero betetzen, lantaldeak egitarau xume bat prestatu du zenbait eragilerekin batera, urtemuga hori herrian bertan eta herritarrekin batera ospatzeko.

Porrotx pailazoarekin ekingo diote goizari, 11:30ean, Okendo plazan. Xumela eta Oaintxe in deu! txarangarekin batera, irri, kantu eta dantza egingo dute bertaratzen diren guztiek. Haurrak ere, jakina, gonbidatuta daude: TXINTXARRI-ri buruzko marrazki bat etxean egin eta plazara ekarriz gero, oparitxo bat jasoko dute trukean. Horrez gain, erredakzioko langileek [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) webgunean

zintzilikatuko dituzte umeez egindako lan guztiak. Behin motorrak berotuta, urriaren 6ko portada izango den argazki masiboa aterako dute Okendon bertan, 12:00etan. Deialdia irekia denez, animatzen den edonor jasoko dute beso-zabalik: norbanako, talde, elkarte...

Argazkia atera eta gero, Jalgi kafe antzokirantz joango dira txarangaren laguntzarekin. Topa-pintxo egingo dute 30 urteak ospatzeko eta baita hiru hamarkada horiek erreparatzen dituen erakusketa ireki ere. Urriaren zehar egongo da ikusgai Geltoki kaleko taberna horretan.

## Artxiboa, herritarren eskura

Hiru hamarkada hauetan metatutako artxiboa da TXINTXARRI-ren altxor preziatuenetako bat. Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Batzordearekin eta Udal Liburutegiarekin hala adostuta, mila aldizkari baino gehiago eraman ditu duela gutxira arte biltegi izan den Erribera kaleko lokaletik kultur etxeko hirugarren solairura. Hilaren 29ko aldizkarian landuko du gai horri buruzko informazioa, luze eta zabal.



1993ko urriaren 1ean argitaratu zuen TXINTXARRI-k lehen zenbakia. TXINTXARRI

## Aterkiak, euskararen aterpe

Urteurrenaren harira antolatu dituen jarduez gain, TXINTXARRI-k fuksia nahiz beltz koloreko aterkiak jarri ditu salgai Ttakun Kultur Elkartearen bulegoan (Geltoki kalea 4, behea) eta Jalgi kafe antzokian. Hona hemen eskaintza: guardasol batek 10 euro balio ditu eta bik, berriz, 16 euro.



# txintxarri

## 1993-2023

# Urriak 1

30. urteurren festa!

# 30

urte!

**11.30** Porrotxekin irri, kantu eta dantza.

Xumela korua eta Oaintxe in deu txarangarekin (haurrek TXINTXARRI-ri buruzko marrazki bat ekartzen badute oparitxo bat eramango dute trukean). Okendo plazan.

**12.00** Argazki masiboa herritarrekin. Okendo plazan.

**12.15** Erakusketaren inaugurazioa. Jalgi tabernan.

**12.30** Topa-pintxo. Jalgi tabernan.





# Euskaraz hazi eta hezi, euskaraz bizi



## GurasoLekun izena emateko azken egunak direla gogorarazi dute lan mahaiko eragileek



GurasoLeku egitasmoa martxan jarri dute hori koordinatzen duten lan mahaiko eragileek. Ikasturte berria eta helburu berbera: Lasarte-Oriako haurrak ahalik eta hitzun osatuenak izatea. Xede horretara bideratuta eta familia tipologia desberdinetara egokituta dauden hiru programa barnebiltzen ditu: GurasoLagun, GurasoTegi eta GurasoLandia. Lehenengoan, euskaraz hitz egiteko gai den pertsona bat (bidelaguna) elkartzen da horretarako ohitura ez duen batekin (bidelaria), azken horrek mintzatzeko beharrezko mekanismoak barnera ditzan. Bigarrenean, euskara eskolak jasotzen

dituzte gurasoek AEK euskaltegian eta oinarritzko gaitasunak landu. Azkenik, hirugarrenean, beste bi ataletako partaideak elkartu eta aisialdiarekin zerikusia duten jarduerak aurrera eramaten dituzte haien haurrekin batera; familiaretan tarte atsegin batzuk igarotzen dituzte, nola ez, euskaraz.

Gero eta errotuago dago proiektua herrian, badirelako makina bat ikasturte GurasoLeku abian jarri zutela; 2014-2015 kurtsoetik ari dira, hain zuzen.

### Izena emateko epea, hilaren 29ra arte

Lehen aipatutako koordinazio foro hori osatzen duten eragileek (Sasoeta-Zumaburu eskola, Landaberri ikastola, Andrejoakinaenea haurreskola, Burunzpe Guraso Elkarte, Landaberri Guraso Elkarte, Muntteri AEK Euskaltegia, Lasarte-Oriako Euskara Batzordea eta Ttakun Kultur Elkarte) gogorarazi dute GurasoLekun izena emateko epea zabalik dagoela oraindik; interesa dutenek hilaren 29ra arte izango dute horretarako, haurraren ikastetxearen edo Ttakun KERen bidez.

Antolatzaileek herriko guraso oro animatu dute egitasmoan parte hartzera. Behin inskripzioak jaso eta epea itxita, urrian jarriko dituzte martxan GurasoLagun, GurasoTegi eta GurasoLandia.



GurasoLagun



GurasoLandia



GurasoTegi



Hauek dira elkarrekin burutuko ditugun ekintzak:		URRIA	Garapen psikoafektibo osasuntsua lehen haurtzarotan
AZAROA	Lehen sorospenak jaioberrietan	ABENDUA	Haurraren mugimendu askea eta seguroa
URTARRILA	Yoga jaioberri eta gurasoentzat	OTSAILA	Mugimendu libre, autonomia eta sozializazioa
MARTXOA	Adimen emozionala	APIRILA	Sendabelarrak eta emozioak
MAIATZA	Umeen akonpainamendu emozionala	EKAINA	Solido bidezko elikadura. Elikadura osagarria



# TESTIGANTZAK

## GurasoLagun

Gure haurra iazko urtarrilean jaio zen eta udaleko Euskara Zerbitzutik deitu ziguten ongietorria egiteko. Orduan eman zidaten GurasoLagun ekimenaren berri eta interesgarria iruditu zitzaidan, ona da horrelako gauzak antolatzea herriko ume eta, batez ere, gurasoentzat. Nik hitz egiten dut euskaraz eta umearekin beti aritzen naiz hizkuntza horretan; senarrak, aldiz, ulertzen du, baina ez da mintzatzeko gai.

Programako hitzaldi batzuetan parte hartzeko aukera izan nuen eta interesgarriak iruditu zitzaizkidan gaiak, esaterako, sorospinari buruz egin zutena. Aurten ere parte hartzeko asmoa dut eta gainerako familiei gauza bera egitea gomendatzen diet, euskara lantzearekin batera haurraren hazkunde prozesuan garrantzitsuak diren gaiak lantzen ditugulako. Horrez gain, beste

guraso batzuekin harremantzen gara eta gutako bakoitzaren kezkek partekatzen ditugu.



Ainara Elicechea



Idoia Ullo

Nire alabarekin euskaraz aritu nahi nuelako animatu nintzen GurasoTegin parte hartzeara; nire etxean gaztelaniaz mintzatzen ginen, eta ohitura hori aldatu nahi nuelako. Euskaldun berria naiz, eta euskara euskaltegian euskara ikasi nuen arren, ez nuen asko erabiltzeko

## GurasoTegi

ohiturarik. Pentsatu nuen aukera oso polita zela nire etxean euskaraz aritzeko.

Laguntza handia izan da; hizkuntzarekiko nire buruarekin konfiantza handia hartu dut. Orain, ez dut euskaraz etxean eta nire alabarekin bakarrik hitz egiten, bazik eta lanean eta lagunekin ere gehiago erabiltzen dut. Nire balorazioa oso ona da, nire esperientzia oso polita izan baita.

Eskolak oso arinak dira. Irakasleak parte hartzaile bakoitzaren jakintza maila neurtzen du, eta laguntza handia eman dit. Gainera, uste dut euskara

ikaste hutsa baino gehiago dela, esperientzia bat. Euskal musikaz ikasi dugu, baita literaturaz ere. Multzo txikia izan da eta giroa oso ona izan da. Egin ditugu txangoak ere bai; joan ginen Añorgako fabrika ezagutzera, eta San Telmo Museora ere bai. Lagunak egiteko ere balio izan dit.

Bai, noski animatzen ditudala. Ikasteko eta ongi pasatzeko esperientzia oso polita da. Gainera, azpimarratu nahiko nuke diruz lagundutako ekimen bat dela; ia-ia doakoa da.

## GurasoLandia

Ikastetxean jaso genuen programaren berri, lehen guraso bileran. Ezagunei ere galdetu genien egitasmoaz, eta esperientzia onak bizitu zituztela esan zigutenez, probatzera animatu ginen.

Gure alabak, parkeko betiko lagunetz gain, haur gehiago ezagutzera izan da helburu nagusia, jende


gehiagorekin esperientzia gehiago partekatzea. Gehien gustatu zaiguna masaje tailerra izan dela esango nuke; izugarri gustatu zitzaion dinamika hori gure alabari.

Aurten ere errepikatzeko asmoa dugu, beraz, animatuko nituzke guraso guztiak betiko konfort zonetatik atera eta beste haur eta

gurasoekin esperientzia berriak partekatzea.



Haizea Sarasola



Hauek dira elkarrekin burutuko ditugun ekintzak:

	HH2 Ipuinak, sentimenduak,...	HH3 Natura	HH4 Sortu eta egin	HH5 Komunikazioa eta gorputz adierazpena
URRIA	Sehaska kantak	Natura-jolasak	Istoriak asmatu	Kirola
AZAROA	Emozioak: Maitasuna	Birziklapena	Musika egin	Antzerkia
ABENDUA-URTARRILA	Ipuinak: Koloreak	Animalien aztarnak	Mozorroak sortu	Dantza
OTSAILA	Masajea	Natura-artelana	Artelanak egin	Hizkuntzak
MARTXOA	Emozioak: Haserrea	Animaliak, maketak	Jostailuak asmatu	Plastika
APIRILA	Ipuinak: Animaliak	Ukenduak	Errezetak egin	Gorputz adierazpena
MAIATZA	Ekintza berezia	Ekintza berezia	Ekintza berezia	Ekintza berezia



# Intzako kideek garaipena erdietsi dute, borrokatuz

Ezker Hormako lehen jardunaldian Errepala eta Eibar 1 gainditu dituzte Intza KEko kideek. Partidak irabazteko ederki borrokatu behar izan dute herriko taldeko jokalariek. Bestalde, pilota eskolako izen ematea hurrengo astean amaitzen da, hilaren 28an

## Txintxarri

Ederki hasi dute Esker Hormako txapelketa Intzako kideek. Gomazko palan zein bikotekako 3. mailako lehen norgehiagokak borrokatu eta garaipena erdietsi dute herriko kirol elkarteko ordezkariek.

Palako bikoak eman zion hasiera asteburuari; hilaren 16an, Loidibarrenen jokatu ziren estreinakoz. Xabier Arteaga eta Julen Urruzola herritarrak Errepala, Real Sociedad taldeko pala ataleko Etxebe eta Sanchez izan zituzten aurrez aurre.

Intzako kideek ongi jokatu arren, atzetik hasi zuten neurketa. Errepalako bikoteak erritmo bizia ezarri zion partidari eta herritarrak pixkanaka joan ziren egoerara moldatzen. Ederki egin zuten, gainera; markagailuari itzulia eman eta 25-18ko emaitzarekin garaipeneko puntuak eskuratu zituzten.

Hurrengo egunean, Michelin kirol gunean izan zen hitzordua. Eskuz binakako Intzako bikoak Eibarren aurka neurtu zituen indarrak.

Partidako lehen pilotakadetan lehia borrokatua zirudien. Seina-ko berdineketarekin gauzak aldatu ziren, ordea. Jon Pello Artetxe eta Peru Urdanpilletak ongi baliaitu zituzten aukerak eta aur-



Intzako Urruzola eta Errepalako pilotaria, neurketako une batean. TXINTXARRI

karien akatsak aldea irekitzeko eta 18-10 jarri zuten markagailua.

Etxekoek partida irabazteko arazorik ez zutela izango zirudien, baina Eibarko Azkargorta-Conde bikoteak erantzun itzela izan zuen. Jokoa bereganatu eta etxekoek urduritasun eta akatsei esker neurketa 18na berdindu zuten.

Egoera korapilatu bazen ere, Artetxek eta Urdanpilletak ez zuten amore eman eta markagailuari itzulia emateko aukerarik ez zioten eman aurkariari. Norgehiagokaren kontrola berreskuratu zuen Intzako bikoteak eta 22-19 irabazi zuen.

Etxean lortutako emaitzak, kanpoan errepikatzeke lan egingo dute Intzako bikoteek. Erreterian eta Azepeitian (ikus ondoko agenda) izango dituzte hitzorduak txapelketako bigarren jardunaldian.

## Azken astea

Bestalde, kirol elkarteko ardura-dunek hilaren 26an eta 28an pilota eskolan inskripzioa egiteko azken egunak izango direla gogora ekarri dute. Bi egun horietan, 17:30etik 18:00etara, Michelin kirol guneko pilotalekuan egin behar da izen ematea.

## Jaizkibelgo igoeran ere podiumean izan da Aitor Manso

Sailkapen nagusiko hirugarren postua eta bere mailako lehena eskuratu ditu herriko gidariak

## Txintxarri

Motor barrunba nagusi izan zen Jaizkibel mendiko magalean hilaren 16an eta 17an, Euskadiko Mendi igoeretako ligako jardunaldia jokatu zen eta automobilismoaren zaletuak bideguru-

tze eta bihurtu guneetan bildu ziren. Aitor Manso herritarrak proban parte hartu eta podiumera igo zen bitan. Sailkapen orokorrean hirugarren amaitu zuen proba eta bere mailako (9. kategoria) garaile izan zen.

Mansok bere ibilgailuarekin lehiatu behar bazuen ere, azken proben antzera Madrilgo Talix taldearen kotxea gidatu zuen hitzorduan.

Entrenamenduetatik ikusi zen Lasarte-Oriako gidariak saria irabazteko lan egin beharko zuela. 10. klaseko Arkaitz Ordoiki (Norma NP 03) eta Miguel Gutierrez (Norma M20 F) jarri ziren bere aurretik lehen saio kronometratuan eta bigarrenen ez zen aldaketarik izan. Hirurek euren markak ondu zituzten

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### OHOREZKO ERREGIONALA

Ostadar SKT - Lagun Onak CD  
Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.

#### GORENGOEN MAILA

Ostadar SKT - Lengokoak SD  
Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.

#### ERREGIONALEN I. MAILA

Ostadar SKT B - Usurbil FT B  
Igandea. 11:40. Michelin kirol gunean.  
Texas CF - Euskalduna A. SD B

Igandea. 16:30. Zubieta, Donostian.

#### OHOREZKO JUBENILA

Vasconia CD B - Ostadar SKT  
Igandea. 11:30. Puio, Donostian.

#### JUBENILEN I. MAILA

Ostadar SKT C - Billabona KE B  
Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.  
Allerru KE - Ostadar SKT B

Larunbata. 12:00. Plazeta, Lezon.

#### OHOREZKO KADETEA

Añorga KKE - Ostadar SKT  
Larunbata. 12:30. Rezola, Donostian.

#### KADETEEN I. MAILA

Texas CF - Billabona KE B  
Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.  
Euskalduna A. SD B - Ostadar SKT B

Larunbata. 12:00. Urnietan.

Ostadar SKT C - Ar. Chaminade C

Larunbata. 13:15. Michelingo kirol gunean.

#### KADETE NESKAK

Ostadar SKT - Usurbil FT  
Larunbata. 11:00. Michelin kirol gunean.

#### INFANTIL HANDI

Ast. Mundarro FKE - Ostadar SKT  
Larunbata. 12:00. Zarkumendegi, Astigarragan.

#### INFANTIL TXIKI

Danena KE - Ostadar SKT  
Larunbata. 12:00. Elbarrena, Zizurkilen.

#### INFANTILEN I. MAILA

Danena KE - Ostadar SKT  
Larunbata. 10:00. Elbarrena, Zizurkilen.  
Euskalduna A. SD - Texas CF

Igandea. 11:00 Zubieta, Donostian.

### ARETO FUTBOLA

#### KOPA

Eguzki AF - Oiartzun KE

Larunbata. 15:00. Maialen Chourraut kirol.

### SASKIBALOIA

#### AURKEZPENA

Ostadar SKTko Saskibaloi atalak taldeen aurkezpena egingo du.

Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.

#### JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA

BKL Loinatz- Ostadar SKT  
Larunbata. 12:30. Antzizar kirol., Beasainen.  
Ostadar SKT - C. San Marcial  
Hondarribia (aurreratutako neurketa)

Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

#### KADETE ERRENDIMENDU URREA

Ostadar SKT - Easo Basket Irulea  
Larunbata. 17:45. Maialen Chourraut kirol.

### PILOTA

#### ESKUZ BINAKA, 3. SENIORRA

Ilunpe 2- Intza KE

Ostirala. 18:15. 3. partida. Izarraitz pilotalekua, Azepeitian.

#### GOMAZKO PALA, 3. SENIORRA

Eple 1- Intza KE  
Larunbata. 10:30. 3. partida. Agustina Otaola pilotalekua, Erreterian.

### IGERIKETA

#### UR IREKIAK

Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudaire World Para Swimming Open Water Cup proban lehiatuko da.

Larunbata. Sardinia, Italian.

### PIRAGUISMOA

#### MUNDUKO TXAPELKETA

Maialen Chourraut piraguista esalon eta kayak kros modalitatean lehiatzen ari da Munduko txapelketan.

Igandera arte. Lee Valley, Erresuma Batuan.

### MENDIA

#### V. MENDI FESTA

LOTMEk antolatuta V. Mendi Festa jokatu da. Bi ibilbide izango dira bata luzea (26,5 km) eta bestea motza (15 km).

Igandea. 07:00 eta 09:00. Lasarte-Orian.

### LASTERKETA

#### JOSETXO IMAZ MEMORIALA

Herritar batzuk 23. Josetxo Imaz Memorialean lehiatuko dira.  
Igandea. 11:00. Beasainen.



Aitor Manso, podiumean. A. MANSO

arren, 02.34,510 eginez Ordokik eskuratu zuen garaipena, Gutierrez bigarren (02.41,852) izan zen eta Mansok (02.42,885) itxi zuen podiuma.

Sailkapen orokorreko hirugarren sariaz gain, 9. mailako garaikurra jaso zuen gidari gazteak. Hurrengo sailkatuari segundo batzuk atera zizkion.

Manso pozik dago egindako lanarekin baina hurrengo hitzorduan, urriaren 21ean Urrakin bere ibilgailuarekin parte hartzea espero du.

# Igerilariek ur irekien denboraldia amaitu dute

Buruntzaldea IKTKo kideek Kontxako Badiako igerialdian esan diote agur itsas zeharkaldien denboraldiari. Juan Vicente Martin eta Laura Igea kideak Gipuzkoako Ur irekietako Ligako lehen postuetan sailkatu dira. Nahia Zudaire Sardinian lehiatuko da

## Txintxarri

Itsas zeharkaldien denboraldiari agur esan zioten igerilariek hilaren 9an. Kontxako Badiako igerialdia izan zen ligako azkena. Buruntzaldea IKTKo Itsaso Tolosa (31.53) seigarren sailkatu zen emakumezkoen mailan eta Juan Vicente Martin (31.56) beterrano 2 mailan bigarren sailkatu zen. Talde kide Garazi Etxeberria (32.42), Igor Amantegi (36.05), Asier Gorostegi (37.58), Laura Igea (38.22) eta Manu Santos (43.12) ere iritsi ziren helmugara.

Era honetara, Gipuzkoako Ur Irekien Ligako sailkapena osatu da eta taldeko bi kide daude lehen postuetan: Laura Igea Master+ mailako bigarren sailkatu da eta Juan Vicente Martinek beterrano 2 kategoriako lehen postua eskuratu du.

## Nazioartean lehiatzen

Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudaire ere itsasoan lehiatzen izango da, hilaren 23an. Igerilari gazteak



Kontxako igerialdian parte hartu zuten Buruntzaldea IKTKo kideak. BURUNTZALDEA IKT

World Para Swimming Open Water Cup txapelketan parte hartuko du, Sardinian, Italian. Espainiako selekzioarekin 3.000 metroko proba lehiatuko du zubietarrak.

## Izen ematea

Bestalde, Buruntzaldea IKTK ikasturteko entrenamendu saioak hasi zituen hilaren 18an. Nahiz eta taldeak masterrak izan ezik, urrian 2an hasten dira martxan egon, izen ematea oraindik irekia dago. Interesa duten herritarrek igeriketa taldeko webgunean ([buruntzaldeaikt.eus](http://buruntzaldeaikt.eus)) aurki dezakete informazio guztia.

## Herritarrek, Zumaiako Triatloian

Triatloio denboraldiari jarraipena eman diote herritarrek. Zumaiako Sprint Triatloia jokatu zen hilaren 16an. Parte hartzaileek 750 m. igerian, 20 kilometro txirringa gainean eta 5 kilometro korrika egin behar izan zituzten.

Trinkoko Itsaso Tolosa, Haitz Mitxelena, Mikel Izagirre, Pablo Muñoz eta Iñigo Ibarburu kideak zein Zumeatarra taldeko Ibai Izagirre eta Maider Lizarraga herritarrek izan ziren lehiatzen. Horien artean hoberenak, Mitxelena (01.04,39) eta Tolosa (01.12,59) izan ziren.

## Taula Xake Klubeko kideak udan ere lehiatzen izan dira

Taldeko kide batzuk zein Juan Rodriguez herritarrek Groseko Nazioarteko Txapelketa jokatu berri dute

## Txintxarri

Taula Xake Klubeko kideak ez dute atsedunik izan udan. Taldeak xake azkar modalitateko bi lagunarteko torneotan parte hartu zuen uztailean: Erreterian I Madalenak Xake Txapelketan eta Atabaka Jatetxeko V. Lagunartekoan Bitoriano, Araban. Azken postuetan geratu arren, esperientzia ederra izan zen, batez ere taldeko gaztetxoentzat.

Erlantz Sanchez kideak, aldiz, 12 urtez azpiko Espainiako txapelketa lehiatu zuen, Salobreñan, Granadan. Uztailearen 10etik 15era, Estatu osoko 190 bat gaztetxo bildu ziren Granadako herrian. Sanchez 11 urtez azpiko mailan lehiatu zen eta bederatziriki neurketa jokatu zituen; bitan garaipena erdietsi zuen eta beste batean berdinketa.

## Lehiaketa ugari

Lehenengo astean taldeko hainbat kide Juan Luis Varela, Alejandro Sanchez eta Erlantz Sanchez Groseko Nazioarteko Xake irekia lehiaketa jokatu zuten, baita Juan Rodriguez herritarra ere. Azken horrek lortu zuen posturik onena; 25. izan zen.

Xake eskolako haurrak ere batetik bestera ibili dira azken asteetan.

Hilaren 9an, Erreterian izan ziren Beraun-Bera elkarteak auzoko jaietan antolatutako 14 urtez azpiko jaialdian. ordezkariak kideen artean, emaitzarik onena Dani Vegasek lortu zuen.

VI. Hondarribiko Jai Nagusietako Xake Jaialdian ere izan zen ordezkari hilaren 16an. Mikel Manterola C taldeko bosgarren postuan sailkatu zen.

## Banakako lehia

Urriaren maila ezberdinetako bakarkako Gipuzkoako txapelketa jarriko da martxan eta xake taldeko kideak lanean ari dira prest egoteko.

Bestalde, klubeko kideek jakinarazten dute, azken urtean ostiraletan ate irekiak egiten bazituzten ere, beste egun batera mugitzea pentsatzen ari direla. "Iaz haur ugari biltzen ziren ostiral arratsaldeetan. Horregatik, egun hori xake eskolako haurrei uztea pentsatzen ari gara eta helduentzako beste egun bat finkatu beharko genuke", adierazi digute.

## Saskibaloitza taldeek emaitza ezberdinak izan dituzte

Junior Errendimendu taldeak ezin izan du Eskoriatza garaitu; kadeteek, aldiz, erraz irabazi dute euren partida

## Txintxarri

Saskibaloiaz gozatzeko goiza izan zen hilaren 16a Maialen Chourraut kiroldegian. Ostadar SKTKo Junior zein Kadete errendimendu taldeek Eskoriatzako taldeen aurka eman zioten hasiera denboraldiari. Batean kale eta bestean bale egin zuten etxeko taldeek.

Goiza ondo hasteko, Kadete Errendimendu taldeak urrezko mailako lehiatzen garaipena erraz erdietsi zuen. Jonatan Reinoren taldeak kanpoko bezala jokatu arren, etxean zegoela baliatu

eta 29-88 irabazi zuen Ikerra Eskoriatza.

Bigarren neurketan, ordea, gehiago borrokatu behar izan zuten Junior Errendimendu taldeko kideak. Andoni Alduncinen taldeak ez zuen aurkaria, Hemen Garbiketa Eskoriatza ezagutzen. Garaipena eskuratzeko neurketa serioa egin behar zutela bazekiten kantxara atera baino lehen. Ez zen horrela izan eta kanpotarrek eraman zuten norgehiagoka, 33-43.

Lehen minutuetatik markagailuan behera joan zen herriko



Junior Errendimendu taldearen neurketako irudia. TXINTXARRI

taldea. Ahaleginak ahalegin urdin-beltzek alde txikitu eta hurbiltzen zirela zirudien urduritasunak akatsak egitera eraman zituen. Egoeraz baliatuz, Eskoriatzako jokalariek hamar puntuko aldera ireki eta neur-

keta amaitu arte mantentze lortu zuten.

Alduncinek azaldu duenez, denboraldia goiz hastea sumatu zuten talde urdin-beltzeko kideek: "Taldea erdia berria da. Eta oportunitate bueltan atake zein de-

fentsako sistemak entrenatzeko denbora gutxi izan dugu. Nabaritu da. Erasoan jokaldiak ez ziren guztiz ateratzen. Partidako momentu askotan trabatu egin gara".

Hobetzeko asko dagoela argi du juniorren prestatzaileak eta lanean gogor jarraituko dute mailara iristeko.

## Hitzordu bikoitza

Saskibaloitza taldeen aurkezpena izango da hilaren 23an, 16:00etan, Maialen Chourraut kiroldegian. Baina neurketak ere izango dituzte kadete eta juniorrek.

Lehenek aurkezpenaren ostean, Easo Basket Irule izango dute aurkari. Zaharrenek bi hitzorduri egin beharko diete aurre, hilaren 23an, Beasainen eta hilaren 24an, etxean Hondarribiaren aurka.

# Herritarrak lasterka egin dute azken asteetan

Usurbilgo Baxurde krosa, Ikazkin Trail edo Uharte-Arakil -Berriain Km bertikalean izan dira lehian Lasarte-Oriako kirolariak. Ederki egin diete aurre distantzia eta zailtasun ezberdina duten probei. Hilaren 24an, V. Mendi Festa izango da Lasarte-Orian

## Txintxarri

Lasarte-Oriako korrikalariak eta herriko taldeetako kideek hainbat lasterketan parte hartu dute azken asteetan.

Usurbilgo Baxurde krosean izan zen ordezkartzarik zabalena. Hilaren 17an, eguraldi paregabearekin, lasterkariak 10,9 kilometroko ibilbidea egin zuten eta Usurbilgo erdiguneko eta Santuena zein Zubietako bideetatik barrena korrika egin zuten.

Ehun bat parte hartzaile izan ziren lehian eta lasarteoriatarren artean, Julen Ormazabal izan zen lehena helmugara iristen; hamai-kagarren postua (42.38) eskuratu zuen. Gainerako herritarrak Asier Gorostegi (47.51), Mikel Benito (51.21), Joseba Vigarra (52.43), Naiara Hernandez (54.21), Aritz Solano (54.36) eta Javier Martin (01.00.40) izan ziren.

## Mendian lehian

Egun berean, Uharte Arakil - Berriain Km Bertikala lehiatu zen,



Julen Ormazabal herritarra, Baxurde krosean lehian. NOAUA ALDIZKARIA

Nafarroan. Andoni Mujika herritarrak Sakanako paisaia zoragarriaz gozatzeaz gain, probako bost kilometroak eta 1.023 metroko desnibel positiboa 01.02.10 markarekin gainditu zituen.

Bestalde, hilaren 9an, Aretxabaletan II. Ikazkin Trail jokatu

zen. 21 kilometro eta 1.200 metroko desnibel positiboa zuen ibilbidea egin zuten parte hartzaileak eta Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko (LOTME) Xabier Mujikak 02.12.03ko denbora behar izan zuen helmugara iristeko.

## Mendi festa eta Garmo beltza

Atzera kontaketa hasi da. Bi egun geratzen dira; Lasarte-Oria Trail Mendi Elkartek antolatzen duen Mendi Festako V. edizioa hilaren 24an izango da.

Aurten Andatza eta Belkoain mendietatik barrena bi ibilbidetaz – luzea (26, 5 km) eta motza (15 km) – gozatu ahalko dute parte hartzaileak.

Ibilbideen informazio gehiago eta izen emate formularioa elkartearen webgunean ([www.lasarteoriatrail.com](http://www.lasarteoriatrail.com)) daude eskuragarri. Federatuek 16 euro ordaindu behar dituzte eta ez federatuek, aldiz, 18. 16 urte baino gutxiago dituztenek 12 edo 14 pagatu beharko dituzte, hurrenez hurren.

## Urriko irteera

Mendi festaz gain, LOTMEko kideek urteko jardueri jarraipena emango diete urrian. Hil horretako 21ean eta 22an, bazkide eta elkarteo lagunek Pirinioetara egingo dute irteera, Panticosara (Huesca) zehazki eta Garmo beltza igoko dute.



Iazko denboraldiko neurketa. TXINTXARRI

## Eguzkik Kopa lehiatzen hasiko du denboraldia

Lehen taldeak Oiartzunen aurka jokatu du hilaren 23an, Maialen Chourraut kiroldegian

## Txintxarri

Areto Futboleko liga urriaren hasten bada ere, 28 taldek kopa lehiari ekin diote. Horien artean da Eguzki Areto Futboleko lehen taldea.

Hilaren 16an jokatu zen lehen jardunaldia eta herritarrek atsedean izan zuten. Hilaren 23an egingo dute bat lehiaketarekin. Josu Lopezen taldeak Maialen Chourraut kiroldegian jokatu du lehen neurketa Oiartzunen aurka.

## Gainerako taldeak

Lehen mailako taldeaz gain, herriko areto futbol elkarteak lau talde izango ditu maila ezberdinetan: hirugarren maila, gazte maila, kadete maila eta infantil maila. Areto Futbol eskolako haurrekin ere jarraituko dute lanean.

Guztiak denboraldia hasteko lanean ari dira. Entrenamendu saioak eta lagunartekoak txandakatzen dituzte urrian lehiakor izateko.

Kadete taldeak, esate baterako, Citruenigoko hiruko trofeoa lehiatu zuen, hilaren 17an. Nafarroako herriko Garbayo Chivite CFS eta Zaragozako Equipe Sport taldeen aurka neurtu zituen indarrak. Bi neurketa irabazi ostean, aragoiko taldeak eraman zuen sari nagusia.

## Ostadar SKTko Ohorezko Jubenilak hutsean utzi du atea

Erregional Gorenak garaipena erdietsi du Urnietan eta Ohorezko Kadeteak ezin izan du Touring garaitu

## Txintxarri

Ostadar SKTko futbol taldeek denetariko emaitzak izan zituzten ligako jardunaldian.

Ohorezko Jubenilak berdinak lehiatzen hasi du denboraldia. Añorga KKEren aurka neurtu zituzten indarrak Antxon Navararren jokalariek eta atea hutsean utzte lortu zuten.

Talde gaztea aurkeztu zuen prestatzaile urdin-beltzak; lehen urteko sei jokalarirekin atera zen zelaira. Mailan hasiberriak izanda ere ederki moldatu ziren taldearen jokora eta neurketa bo-

rrokatua ikusi zuten Michelinera hurbildu ziren zaletuek.

Tamalez, gol gutxiz gozatu zuten ikusleek. Lehen zatian, gol bat baliagabetu zieten etxekoei kornerrean falta egiteagatik eta atsedendiaren ostean, beste aukera garbia izan zuten Navararren mutilek. Baina langa gainetik joan zen baloia.

Aurkariak ere ez zuten arriskurik sortu. Etxeko taldearen akatsa bilatu eta gola egiteko asmoz jokatu ziren añorgatarrak erasoan. Defentsan, aldiz, Ostadarren jokoa oztopatzen saiatu ziren neurketa



Ohorezko Jubenileko eta Añorgako jokalariek, baloia. TXINTXARRI

osoan zehar. Ondorioz, husnako berdinketarekin amaitu zen lehia.

## Gainerako neurketak

Erregional Gorengoak lehen partida jokatu eta garaipena lortu zuen Urnietan. Ostadar

nagusi izan zen eta 0-3 gailendu zuen Jon Iruretaren taldea.

Bestalde, galdu egin zuen Ohorezko Kadeteak. Jagoba Mendizabalek jokalariek ederki borrokatu arren, Touringen aurka 0-1 galdu zuten.

## ZORION AGURRAK



**Oinatz**  
Zorionak, Oinatz!  
Muxu handi bat  
ama, aita eta  
aiton-amonen  
partetik!



**Xuhar**  
Zorionak Xuhar!  
Handitzen ari zaigu  
etxeko txikia...Ondo  
pasa zure bigarren  
urtebetetzean!



**Pili**  
Zorionak Maripili!  
2x2 ez, 4x4 zeala!  
Brrrrrrrr, brommm  
konbustible earra  
ekarri zenon  
asteazkenean...  
baina falta zairo ron!

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 22	GANDARIAS-URIBE
LARUNBATA, 23	DE MIGUEL
IGANDEA, 24	DE MIGUEL
ASTELEHENA, 25	DE ORUE
ASTEARTEA, 26	DE MIGUEL
ASTEAZKENA, 27	LASA
OSTEGUNA, 28	GIL

**Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00**  
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00**  
K. Aizpuru Odriozola: Latumbe Berri 11,  
Hernani. 943-33 60 77

**'URTE OSOKO GUARDIAK'**  
Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com)  
webgunean eskuragarri.

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 22



Larunbata, 23



Igandea, 24



Astlehena, 25



Asteartea, 26



Asteazkena, 27



Osteguna, 28



## Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

### Internet

- [txintxarri.eus/zorionagurrak](http://txintxarri.eus/zorionagurrak).
- Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
- Bidali zorion agurra formularioa bete.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

### Posta elektronikoa

- Mezua bidali [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

## TELEFONOAK

### UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

### LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112



**Jaio da!**

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

## SUDOKUA

4	5			7		9	
			1	4		3	8
		1		2		4	
			9	3		7	
	2		7		4	1	
9	6	7					2
	8	9				7	
2		5	6		8		4
3					1		5

Sudoku10.net

## OHARRAK

### Udako Txokoetako eta Kanpaldietako galdutako gauzak

Ttakun Kultur elkarteak jakin arazten du, Udako Txokoetan eta Kanpaldietan haurrek ahaztutako zenbait jantzi eta beste-lako tresnak jaso dituela.

Gauza guztiak elkartearen bulegoan (Geltoki kalea, 4) egongo dira ikusgai eta eskuragarri hildaren 28ra arte.



### Zatoz txistua jotzera

Txistularia bazara, eskola zaharrekoa zein kontserbatoriokoa, hasiberria edota txistua tiraderan ahaztuta hautsa biltzen dutenetakoa. Duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera. Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.

### Erketz EDTren entseguak

Erketz EDT taldeko arduradunek ezagutarazi dutenez, Garaikoe-txea-Landaberri ikastetxean elkartzen dira asteartero, 19:00etan. "Nahi duen edonor" parte hartzera animatu dute.

### Bilera irekia

Transmaribollo Kolektiboak ikasturtean zehar egingo dituen jarduerak zehaztu eta planifikatzeko bilera ireki bat egingo du hildaren 26an Ttakunenea elkartean, 18:30ean. Interesa duen edonor bertara daiteke hitzordu horretara.

## ESKUTITZAK

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki kalea 4, behea), [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan

## AZOKA TXIKIA

### ETXEBIZITZA

#### SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 089 380 zenbakira.

#### ERRENTAN EMAN

Garaje marra alokatzen dut Urdaneta eraikinean, beheko solairuan. Sarbide eroso. Harremanetarako zenbakia, 620 18 87 87.

#### LANA

#### ESKAINITZA

Zientzia arloak, ingelesa zein pintura eta manualitateak gaiak eskainiko dituzten irakasleak behar dira ikasturte osorako. Interesateuek bidali CVA info@zitek-akademia.com helbidera.

Jornada erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Kotxea izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644 11 61 22.

Bi umeei klaseak emateko neska edo mutil bat behar dugu. Bat LH4. kurtsoan dago eta bestea DBH4en. Utzi mezua whatsappen zure datuekin, adina, ikasketak, orduko prezioa... 688 74 09 31.

#### ESKARIA

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erixeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erixeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketeta...) FP-2 mekanizatua egina dut. Zubietan bizi naiz. Harremanetarako zenbakia, 602 08 25 83.

Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zubietan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. Harremanetarako zenbakia, 602 08 25 83.

#### BESTELAKOAK

#### OPARI

Katakumeak oparitzeko. Oso politikak! Harremanetarako telefonoa: 628 90 41 30.

## ESKELA


**ESKELAK JARTZEKO**

**TEL: 943-37 14 48**  
edo **TXINTXARRI** erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

**Txintxarri: doan eta euskaraz**  
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



### Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

# txintxarri

*Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz*



[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

## txintxarri

[WWW.TXINTXARRI.EUS](http://WWW.TXINTXARRI.EUS)

**Argitaratzailea**  
Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

**Administraria**  
Nerea Garziarena.

**Erredakzioa**  
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

**Publizitatea**  
Irati Zatarain.

#### Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexu Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

#### Banatzaileak:

Lide Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola, Egoitz Epelde, Endika Merchan, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

**Informatika zerbitzuak**  
IZT Informatika.

**Publizitatea**  
Tel.: 943-37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

**Egoitza nagusia**  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

**Inprimategia**  
Zeroa Multimedia, S.A.  
Lege Gordailua: SS-513/93  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

## OSTIRALA 22

**LASARTE-ORIA Jarduera**  
Ondo ibili egitasmoko paseo osasungarriak hasiko dituzte.  
*Okendo plaza, 11:00etan.*

## LARUNBATA 23

**LASARTE-ORIA Mugikortasun Astea**

Zenbait jarduera aurrera eramango dituzte Europako Mugikortasun Astearekin bat egiteko prestatu duten egitarauaren barruan.

**10:00etan**, bizikleta martxa bat abiatuko da Okendo plazatik.

**10:30etik 14:00etara**, bigarren eskuko bizikleten azoka egingo dute Okendon.

**11:00etatik 13:30era**, jolasak egingo dituzte Okendon eta Kale Nagusian.

*Erdigunea, 10:00etatik aurrera.*

**LASARTE-ORIA Rallya**

San Sebastian Circuit Spirit rallyaren seigarren aldia egingo dute. Andoaindik etorriko dira autoak Ori auzora, eta handik Hipodromora joan. Ordu erdiko geldialdi bat egin eta herrian barrena ibiliko dira: Donostia etorbidea, Kale Nagusia eta Zirkuitu ibilbidea.

*Hipodromoa, 17:30ean.*

**LASARTE-ORIA Dantza**

Erketz EDT dantza taldeko kideek aurreko ikasturte amaierako emanaldia aurrera eramango dute. Sarrera doakoa izango da. Eguraldi txarra egiten badu, kultur etxean ariko dira.

*Okendo plaza, 18:00etan.*

## IGANDEA 24

**LASARTE-ORIA Ospakizuna**

Lasartearra elkarteak 50 urte bete dituela ospatzen jarraituko du bazkidearen eguna eginda.

**11:00etan**, hildako bazkideen omenezko meza, Arantzazuko Ama parrokian.

**11:30ean**, haurrentzako puzgarriak Zumaburu plazan (herritar guztiei irekitako jarduera da hau; eguraldi



**LASARTE-ORIA Dantza**

Erketz EDT dantza taldeko kideek aurreko ikasturte amaierako emanaldia aurrera eramango dute. Sarrera doakoa izango da. Eguraldi txarra eginez gero, Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan ariko dira.

*Bihar, hilak 23, Okendo plazan, 18:00etan.*

txarra eginez gero, Loidibarren pilotalekuan jarriko dituzte).

**11:45ean**, bazkideek poteo girotua egingo dute Ilargi, Avenida, Arkupe eta Genesis tabernetan, Bentazarreko Mutiko Alaiak taldearekin batera.

**12:00etan**, Erketz EDT dantza taldeak emanaldia egingo du Zumaburu plazan (herritar guztiei irekitako jarduera da hau; eguraldi txarra eginez gero, Loidibarren pilotalekuan dantzatuko dute).

**15:00etan**, Erribera kaleko egoitzan bazkalduko dute bazkideek. Ostean, Lasartearren 50 urte daramatzatenak omenduko dituzte eta baita Lourdes Sarabia (elkartearen sorreran paperak egiten lagundu zuen) eta Valentina Gainza ere (elkartearen armarrria eskuz brodatu zuen).

*Erribera kalean eta inguruetan, 11:00etatik aurrera.*

## OSTIRALA 28

**LASARTE-ORIA Kontzertua**

Danak Kide elkarteak XVIII. musika topaketak aurrera eramango ditu. *Ad lucem quam inhabitas...* izeneko kontzertua emango dute Ana Belen Garcia organistak, Izei Mugica tenoreak eta Maria Jaunarena eta Marta Garcia sopranoek. Sarrera doakoa izango da.

*Ama Brigitarren komentua, 20:00etan.*

## IGANDEA 1

**LASARTE-ORIA Ospakizuna**

TXINTXARRI aldizkariak 30 urte bete dituela ospatuko du herritarrekin, egitarau honen bidez:

**11:30ean**, Porrotx, Xumela eta Oaintxe in deul! txarangarekin irri, kantu eta dantza, Okendo plazan. TXINTXARRI-ri buruzko marrazkiak ekartzen dituzten haurrek sorpresatxo bana jasoko dute.

**12:00etan**, argazki masiboa, Okendon.

**12:15ean**, erakusketaren irekiera, Jalgin. Ondoren, topa-pintxoak, elkarrekin.

*Okendo plaza, 11:30ean.*

**LASARTE-ORIA Omenaldia**

Adinekoen Omenaldi Astea hasiko da, jarduera hauekin:

**11:30ean**, bandera igotzea, Biyak Bat elkartearen egoitzan.

**12:00etan**, meza, Arantzazuko Ama parrokian. Amaitutakoan, kalejira kultur etxera.

**13:15ean**, ikuskizun umoretsu bat, kultur etxean.

**14:00etan**, bazkaria eta dantzaldia, Michelin kirol gunean.

*Biyak Bat elkartearen egoitza, 11:30ean.*

## Lagun iezaguzu uda honetako argazki ederrena aukeratzen!

*Piriniotako zaindaria, Gardentasuna, El grito de Munch hondartzan, Praia do Norte, Itsasoa gara, Eguzkia gabon esanez eta Gau giroa.* Horiek dira aurtengo lehiaketara aurkeztu diren argazkilarien lanen izenak. Ikus dezakezue, ederrak dira irudiak, eta zuen laguntza behar dugu irakurleen saria irabaziko duena nor izango den erabakitzeko. Hilaren 24ra arte izango duzue [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) webgunera sartu eta zuen iritzi argazki onena denaren alde bozkatzeko; animatu eta parte hartu! Ttakun Kultur Elkartearen produktu sorta bat eramango du garaileak. Horrez gain, ohi bezala, epaimahaiaren saria ere emango dugu, Aldika Kutixiak-eko lagunek prestatutako produktuz betetako saski eder bat. Argazkilaria profesionalaz osatutako mahai batek deliberatuko du.



'Piriniotako zaindaria'.



'Gardentasuna'.



'El grito de Munch'.



'Praia do Norte'.



'Itsasoa gara'.



'Eguzkia gabon esanez'.



SARIA **aldika** produktu bereziak

2  
0  
2  
3  
A

**argazki lehiaketa**  
TXINTXARRI ALDIZKARIA

txintxarri  
txintxarri@ttakun.eus  
946 82 44 66 (WhatsApp)  
txintxarri.eus/lehiaketa

Progresiboen hilabetea

2x189€

mó betaurreko  
progresibo

batzuk eguzkitakoak izan daitezke

R.P.S. 91/20



Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
LASARTE-ORIAHartu  
hitzordua  
Whpp  
bidez

MULTIÓPTICAS



# Kronika<sup>ren</sup>

aldeko Herriarteko Erremonte Txapelketa

2023 / 09 / 29 - 16:00 - Galarreta jai-alai

Bailarako 20 sagardotegi baino gehiagoren sagardoa | Dantzariak

**SARRERA 12€**  
 PINTXOA + EDARIA  
 \*10 URTETIK BEHERAKOAK DOAN



**Kronika**

Emaiozu buelta bat zure munduari euskararekin 2023-24

**IBILBIDEAK**

- Aurrez aurreko ikastaroak, hainbat iraupen eta intentsitatekoak
- On-line ikastaroak, autoikaskuntza...

**AGENTZIAK**

- Udaleko euskaltegia
- Muntteri-AEK euskaltegia

**BALDINTZAK**

- Lasarte-Orian erroldatua egotea, ikastaroa hasi baino egun bat lehenagotik ikastaroa amaitu bitartean.
  - 16 urte beteak izatea ikastaroa amaitzen den egunean.
  - Ikastaro hauetakoren bat egina izatea:
    - 1.- Euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa.
    - 2.- Barnetegia, gutxienez hilabete segidan baldin bada.
    - 3.- Udako ikastaroak (ikasturtean zehar aurreko ikastaro-mota horietako bat egin duten ikasleen kasuan bakarrik)
  - Gutxienez %85eko asistentzia eta gutxieneko aprobetxamendua gainditua.
- Dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo 15 egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera.*


**ONDO  
iBiLi!**

 BEKA  
 matrikularen  
 a r t e **%85** a

**Informazio gehiago**

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943-37 61 84
- e-maila: [euskara@lasarte-oria.eus](mailto:euskara@lasarte-oria.eus)

LASARTE-ORIA  
UDALA - AYUNTAMIENTO